

AGERIKO BATZARRA

Iruñean, 2001.eko martxoaren 29an

Nafarroan euskarak bizi duen egoeraren aurrean Euskaltzaindiak batzar berezia antolatu du *Euskara Nafarroan* izenburupean. Jardunaldi horretara euskaltzainei ez ezik euskalgintzan dihardutenei ere dei egin die Euskaltzaindiak. Hona hemen bildu diren euskaltzainen izenak: J. Haritschelhar, H. Knörr, P. Goenaga, J. A. Arana, B. Oihar-tzabal, A. Urrutia, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, J. L. Davant, A. Iñigo, X. Kin-tana, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta. Euskaltzain oso hauez gainera, J. M. Jimeno Jurio euskaltzain ohorez-koa eta J. Cortes Izal, J. L. Lizundia, P. Salaberri eta J. J. Zearreta urgazleak ere bil-du dira.

Bilkura arratsaldeko seietan hasi da. Mahaiburu Jean Haritschelhar jauna izan da, hizlari gisa parte hartu dutenak lagun zituela.

Euskaltzainburuaren agurraren ondoren, Jose M^a Satrustegi euskaltzainak hartu du hitza “Nafarroako euskararen azkenaldiko historia” gai hartuta. Euskaraz hitz egin du lehenbizi, gaztelaniaz ondoren.

Bigarren hizlaria Andres Iñigo euskaltzain eta Nafarroako ordezkaria izan da. “Euskararen egungo egoera Nafarroan” izan da aztertu duen gaia.

Ondoren, Andres Urrutia eta Patxi Zabaleta euskaltzainen artean aurkeztu duten txostena etorri da: “Euskara Nafarroan, legearen ikuspegitik”.

Azkenik, Juan San Martinek eskaini du berea: “Giza eskubideak, era orokorrean eta hizkuntzaren arloan”.

Ondoren zenbait galde-erantzun izan dira (agintariei dei egin zaien ala ez, zein izango diren Euskaltzaindiaren ekintzak, etab.) eta zortziak laurden gutxitan amaitutzat eman da ekitaldia.